

Martxoaren 6an **HAUSTERRE EGUNA**

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizuma hasten dugu gaurko Eukaristia honekin. Bertan hautsaren ezaugarriaren bidez gure bekataria izatea aitortuko dugu, eta Bataioaren bidea berreginez Pazkora gerturatu behar dugula onartuko dugu. Penitentzia-aldia eta Bataio-aldia badugu Garizuma, baina bereziki Pazkorako prestaera aldi dugu. Larunbat Santu gaez ospatuko dugun Pazko Gaubeila Santuari begira jartzen gara gaurtik. Han garbituko dira gaurko hautsaren bekatu-aztarnak. Han berrituko da gure Bataioko hitza. Han Kristo garaile agertuko da berriz heriotzaren gainetik bizia berrituz. Pazkoa dugu guk, hitz emandako lurra. Hara goaz, Israel-herri izaki, basamortuko bidea eginez.

Hautsaren ezaugarria egingo denez, ez da Damu-otoitzik egingo

Otoitza

**Indar gaitzazu, Jauna, zeure laguntzaz
Garizumaren hasiera honetan
bihotz-berritzeari ekin diezaiogun,
penitentiaren bidez etsai gaiztoari gogor egiteko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Garizumako jarrera berezia da, penitentzia eginez prestatzea. Pazkoan Kristoren heriotzaren lehenengo ondorioa: Jainkoarekin adiskidetzea gertatuko da, horretarako prestatzen ari gara.

Lehenengo irakurgaia (// 2, 12-18)

Joel profetaren liburutik

«Begira zer dioen Jaun guztiz ahaltsuak: Itzul zaitezte Niregana bihotz-bihotzez, baraez, negarrez eta saminez. Urra itzazue bihotzak, ez soinekoak; itzul zaitezte Jaunagana; zuen Jainkoagana; bihotz-bera eta errukitsua bait da, haserretzen zaila, erruki handikoa, eta bere zemaiez damutzen dena. Nork daki ez ote den itzuliko eta damutuko, eta ez ote digun utziko oraindik bedeinkapena eta eskaintza, eta Jaunaren, gure Jainkoaren isur oparia? Jo ezazue turuta Sionen, adierazi oihuka baraua, dei egin batzarrera; bildu herria, bedeinkatu batzarra, bildu zaharrak eta ekarri gaztetxoak eta bularreko haurrak; atera bedi senarra ezkon-gelatik, emaztea ezkon ohetik. Sarrera eta aldare bitartean negar egin bezate apaizek, Jaunaren zerbitzariiek, eta esan: «Barka, Jauna, barka zure herriari; ez utzi lotsatan zure ondarea; ez dezatela menperatu jentilek, ez dezatela esan arrotzek: Non dute, bada, beren Jaungoikoa?» Sor bekio Jaunari bere lurraldearekiko errukia eta barka biezaio bere herriari».

Erantzun-salmoa (Sal 50, 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17)

E - rru - ki, Jau - na, be - ka - tu e - gin du - gu ta.

Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun handiaz,
suntsi ezazu nire makurra zeure amaigabeko errukiaz.
Garbi nazazu zeharo neure hobenetik,
ikuz nazazu neure gaiztakeriatik. R/.

Neure bihurrikeria ezagutzen baitut,
neure hobena beti begien aurrean baitut.
Zuri egin dizut bekatu, Zuri bakarrik,
zure begietan oker dena egin dut nik. R/.

Bihotz garbi bat, Jainko, sor ezazu niregan,
arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean.
Ez nazazu urrun zeure aurretik,
zure arnasa santua ez kendu niri. R/.

Zeure salbamenaren poza bihur jezadazu,
zeure arnasa zabalez sendo nazazu.
Irekiko dizkidazu ezpainok, Jauna,
eta nire ahoak iragarriko du zure gorespena. R/.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 5, 20 – 6, 2)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Gu Kristoren ordezeko bezala ari gara, beraz; Jaungoikoak gure ahoz hots egingo balizue bezala. Kristoren izenean esaten dizuegu: adiskidetu zaitetze Jaungoikoarekin. Bekaturik ezagutu ez zuen Hura, Jaungoikoak guregatik bekatu bihurtu zuen, guk Harekin bat eginda Jaungoikoaren salbamina irits dezagun.

Jaungoikoaren zerbitzari garenez gero eskatzen dizuet, ez dezazuela alferrik har Haren grazia. Berak bait dio: «Garai egokian entzuten dizut; eta salbamen egunean laguntzen». Begira, beraz: oraintxe da garai egokia, orain salbamen eguna.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Sal* 94, 8a. 7b)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

Gaur, ez gogortu zuen bihotza,
baizik-eta entzun Jaunaren mintzoa. R/.

Ebanjelioa (*Mt* 6, 1-6. 16-18)**Homiliarako argibideak**

Bihotz-berri zaitetze eta sinetsi berri ona

Gaurko irakurgaiak bihotz-berritzera gonbidatzen gaituzte, Pazkorantz bidean jartzera, bertan bizitza berriaren partaide egingo baikaitu Kristok.

a) Joelen garaian turuta-hotsa bezala, gaur Jainkoren Hitzaren eta Elizaren deiaren bidez entzuten dugu Garizumara, baraua egitera eta bihotz-berritzera egiten zaigun deia.

Kristau asko etsita bizi dira egungo egoeraren aurrean: fede falta, bokaziorik eza, Egiptoko izurriteen antzera oinarrizko giza- eta kristau-balioak goitik behera erortzen ikustea. Ba al dugu etorkizunik? Garizumak baietz erantzuten erakusten digu. Jainkoa ongian aberatsa eta errukiorra delako, beti barkatzeko eta aukera berriak emateko prest dagoelako. Eta pertsonak, lokartuak egonda ere, Espirituaren indarrak bultzatuta alda baitaitezke.

Horregatik pazko-bideari ekiteko deia egiten zaigu, gurutzea eta geure buruari uko egin beharra dituelako zaila den bidea.

Geuregan, gizartean eta Elizan ondo ez dauden gauzak badirela aitortu behar dugu eta, beraz, aldaketa, bihotz berritzea, bide berriak urratzea beharrezkoa dela.

Ondoren egingo dugun hautsaren ezaugarriak, hautsa garela eta hautsetara itzuliko garela gogorarazten digu alde batetik, eta on da hori ez ahaztea. Eta bestalde, ezaugarri honen bidez Ebanjelioa gure bizi egitasmo dela aldarrikatzen dugu; Ebanjelioa dela Jesusen jarraitzaileon pentsatzeko, sentitzeko eta bizitzeko era.

b) Paulok Korintoko elkarteari egindako deia geure egiten dugu. Elizaren baitan jasotzen dugu hitz hori, Elizaren zerbitzu nagusi baita adiskidetzearen zerbitzua: Jainkoak luzatzen digun eskua onartu behar dugu, Garizuma-Pazkoan eskaintzen zaigun adiskidetzearen aukera bikaina onartu ere.

On da Kristoren Pazkoa, garaipena eta barkamena geureganatzeko prestatzea: Adiskidetzearen Sakramentua ospatuz, Eukaristiara gerturatuz, Kristorekin heriotzan eta Piztueran bat eginez.

c) Beharrezkoa dugu konturatzea, kanpoko ezaugarriak onak direla, baina barruko bihotz-berritzea adierazten duten heinean. Jesusek aurkeztu dizkigu, bihotz-berritze horretarako hiru bideak.

Hurkoari dagokionez, harrokeriarik gabeko karitatea, maitasunean eta eskuzabaltasunean oinarritzen den solidaritza. Jainkoari begira, kanpoko hitz eta errito hutsetan geratzen ez den otoitza, bihotzetik datorrena. Geure buruari begira, barauak ematen digun neurria, bigarren mailako gauzak alde batera uztea, lehenengo mailakoei begirada sakonagoa ematen jakiteko.

Hori guztia –limosna, otoitza, baraua– ez dugu egiten inori arreta pizteko, egiaz eta sakontasunez besteei eta Jainkoari bihotza gehiago zabaltzeko baizik. Geure buruari begira ez bizitzeko. Barrua zabaldu ahala, geu egian hazteko.

Hautsaren ezaugarria

Apaizak, zutik eta eskuak bildurik dituela, esango du:

Senideok: egin diezaiogun otoitz Jainko Aitari, penitentziaren ezaugarri hartuko dugun hauts hau bere grazia ugarietz bedeinka dezan. (Isilunea)

**Jainko Jauna,
umiltasunak bigundu egiten zaitu eta damuak samurtu;
entzun gure otoitzak, eta isur bihotz onez
zure bedeinkapenaren + grazia
hautsa hartzera doazen zure zerbitzarien gainera:
Garizumako egintzak zintzo betez,
gogo-bihotzak garbiturik, irits daitezen
zure Semearen bazko misterioak ospatzera.
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

**Jainko Jauna, ez duzu bekatarien heriotzarik nahi,
bihotz-berritzea baizik;
entzun bihotz onez gure otoitzak,
eta bedeinka + ezazu
geure buruetan ipiniko dugun hauts hau;
badakigu hauts garela eta hauts bihurtuko;
emaguzu, Garizumako egintza berezieren bidez,
gure bekatuen barkamena,
hilen artetik piztu den zure Semearen antzera
bizi berria iritsi dezagun.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Errautesak ur bedeinkatuz zirtatuko ditu ezer esan gabe.

Ondoren jendeari buruan ipiniko dio hautsa. Bitartean, kantu egoki bat kantatu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egin diezaiogun otoitz Guraso dugun Jainkoari:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

—Eliza bere kide guztiakin eta gizaki guztiakin bihotz oneko izan dadin. Egigun otoitz. R/.

—Agintariek, bigarren mailako gizakirik egon ez dadin lan egin dezaten. Egigun otoitz. R/.

—Sufrimendua eta zatiketa bizi duten familia guztien alde. Egigun otoitz. R/.

—Seme-alaba garella konturatuz, elkarren senideago izan gaitezen. Egigun otoitz. R/.

Entzun, Jauna, gure otoitzak eta agertu zure errukia herri honengan, Garizumako egun hauetan bihotzez bila zaitzagun eta konfiantzaz itxaron. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Garizumako III. edota IV. prefazioak erabil daitezke (Meza liburua 326-327 orr.).

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Hartu dugun sakramentuak
zure gogoko egin ditzala gure barauak
eta guretzat osasungarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Oi Jainko, eman bihotz onez damu-espirtua
zure aurrean apalki makurtzen diren zure seme-alabei,
damutuei Zuk agindutako saria
zure errukiari esker irits dezagun.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.

Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordeztan, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (liburuxka honetan, 6. orrialdean).